


Aurkezpena



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

1. Batxilergoan proposaturiko hezkuntza materiala

Karpeta pedagogiko honek hainbat proposamen didaktiko ditu eta, horien bidez, curriculumeko materia bakoitzetik abiatuta, gizartearen partaidetzaren gaia landu daiteke. Prozedurazko proposamen berrietatik abiatuz jarrerak eta balioak lantzeko apustua egiten duen materiala da. Garrantzitsuenak ez dira, beraz, kontzeptuei dagozkien edukiak; aitzitik, elkartasuneko jarrera arduratsuak lortzeko eta ikaskuntza garrantzitsuak lortzeko aukera ematen duten prozedura berritzaileak dira oinarritzkoak.

Proposamen hau hiritartasunaren kontzeptua lantzen duen hezkuntza-proiektu zabalago baten zati da. Proiektuan hiru gai desberdin lantzen dira hiru ikasturtetan: eskubideak eta erantzukizunak; gizartearen partaidetza; eta gatazkak maneiatu eta konpontzeko modu baketsuak. Ondoren, proiektuaren bigarren urte honetan sortutako hezkuntza-materialaren zati bat aurkeztzen da; material horrek, hain zuzen, gizartearen partaidetzaren gaia lau premisa hauetatik lantzeko aukera ematen du:

- Antolatutako pertsona askoren ahaleginari eta parte-hartzeari esker lortu dira gauza gehienak gizartean.
- Eremu zabalagoetan parte hartzeko, gertuen dauden eremuetan parte hartzen hasi behar da (familia, ikasgela, auzoa).
- Mundua aldatzen laguntzeko aukera ugari dago.
- Partaidetzak bizi garen munduko protagonistak izateko eta pertsona oroentzako mundu duin eta justua goa eraikitzeko aukera ematen du.

Hiritar gisa bizi garen gizartean sartu eta parte hartzeko erantzukizuna –gure gain hartu behar duguna– lantzeko jarduera-proposamenak egiten dira hainbat curriculum-diziplinen ikuspegitik. Horrela, **matematikaren arloan**, hainbat herrialdek Garapenaren Laguntza Ofizialera (GLO) eta armen salerosketara zein diru-kopuru bideratzen duten konparatzen da grafikoak aurkeztuz eta interpretatuz; **biologian**, eztabaida eta rol-jokoaren bidez, inguru-mena hondatzen duten eragileak eta hiritarrek hura hobetzeko egin dezaketena aztertzen dira; **ekonomian**, kanpo-zorra aztertzen da, horrek eragiten dien pertsona eta herrialdeen ikuspuntutik, eta antolatuta esku hartzeko moduak aztertzen dira; **hizkuntza eta literaturan**, ahozko eta idatzizko hizkuntzaren erabilera soziala kritikoki aztertzeko proposatzen da eta ikastetxeko martxan parte hartzeko moduak probatzen dira; **filosofian**, parte-hartzearen kontzeptutik eta mailetatik abiatzen da, eta oinarritzko prozedurak erabiltzen dira adimen-garapenerako eta erabakiak taldean hartzeko prozesuetan parte hartzeko; **historian**, trantsizio-garaia eta sortu ziren mugimendu sozialak aztertzen dira, horiek munduaren gaur egungo egoeran izan duten eragina ikusteko; **etika**, ikastetxean dauden posterren inguruan lan egitea proposatzen da eta gizartearen partaidetzarako dauden bideen inguruan hausnartzera bultzatzen da, horietako batzuk zalantzak jarriz.



DBHko bigarren ziklorako materialean, hezkuntza-garai honetarako interesgarriak izan daitezkeen proposamenak sartzen dira **erlijio** eta **atzerriko hizkuntza** arloetarako.

Hauak dira materialar martxan jarriz lortu nahi diren **helburu orokorrak**:

- Pentsatzeko estilo pertsonala eta estilo hori ahoz zein idatziz garbi eta koherentziaz adierazteko gaitasuna garatzea.
- Mundu mailako bizikidetasuna sortzeko parte-hartze aktiboa baloratzea. Bizikidetasun hori giza eskubi-deen, eskubide indibidualen eta kolektiboen errespetuan eta naturaren eta bakearen defentsan oinarritzen da.
- Adimena lantzeko oinarritzko prozedurak erabiltzea: informazioa bilatzea, zuzenean behatzea, kontrastatzea, aztertzea, laburtzea eta kritikoki aztertzea, arazoak formulatzeko eta konpontzeko beharrezko adimen-zorroztasuna onartuz.
- Argumentu, erantzun filosofiko eta besteen sinismenekiko sentikortasuna erakustea, gure iritziak aberrasteko eta kontrastatzen ikasteko.
- Jarrera kritikoa hartzea desberdintasun eta diskriminazio sozialak justifikatzen direnean.
- Elkarriketa eta eztabaidetako jarrerak balioestea arazoak eta gatazkak konpontzeko biderik onenak baitira.
- Parte-hartze aktiboaren garrantziaz jabetzea arazo kolektiboetan eta ondorengo balioak defendatzen dituzten programa eta ekintzetan: bakea, justizia, berdintasuna, eta bizi-baldintzak eta ingurumena hobetzea.
- Gertaeren eragileei, bilakaerari eta ondorioei buruzko hipotesiak formulatzea.

2. Zikloko irakasle eta gurasoentzat lan-proposamena

Zikloan gai hau lantzen hasteko irakasleek eta gurasoek gaiari buruz hausnartzeko denbora eta materiala edukitzea komeni dela uste dugu, baita helburu nagusiak zehazteko eta ikastetxearen errealitatera egokitzeko ere.

Horretarako, orientazio gisa erabiltzeko bi dokumentu aurkeztuko dira. Lehen dokumentua “*Munduko hiritarrok. Gure munduko protagonistak gara*” da. Bertan hiru urte iraungo duen proiektuaren filosofia aurkezten da. Lortu nahi dugun hiritartasun kontzeptua definitzen da eta hezkuntza-estrategia batzuk zehazten dira.

Bigarren dokumentua “*Hiritartasun unibertsala lortzeko parte hartzea*” da. Hor, karpeta honetan aurkezten diren hezkuntza-materialen proposamenean oinarritutako filosofia aurkezten da. Material horiek badituzte



osagarri batzuk ere: posterrak, bideoa, zentzuen arteko proposamena lehiaketa, mahai-jokoa eta ALBOANen aholkularitza- eta trebakuntza-zerbitzua.

Dokumentu horiek irakasleak eta gurasoak trebatzeko oinarri gisa erabil daitezke. Trebakuntza-saio horietan ikuspuntuak partekatu, testuinguru zehatzen arabera lan egiteko lehentasunak ezarri eta proposamenak osa daitezke.

Orain, hiru trebakuntza-saio proposatuko ditugu klaustroan, taldeka edo gurasoekin eztabaidatzeko.

1. saioa:

Aurrez *"Munduko hiritarrok. Gure munduko protagonistak gara"* dokumentua emango zaie.

1. Taldekako dinamika: hiritartasuna hitzaren inguruan scrabble jokoa.
 - a. Agertzen diren hitzen inguruan eztabaidatzea.
 - b. Horien lehentasuna.
2. Hiritartasunari buruzko dokumentuaren inguruan galdera hauek planteatzea.
 - Dokumentuaren inguruko azalpenak edo iruzkinak.
 - Zer iradokitzen dizu hiritartasuna hitzak?
 - Gaiaren diagnostikoa:
 - Ikasgela, ikastetxea, irakasleak, gizartea.
 - Zer zerikusi dauka horrek zure heziketa-lanarekin?
 - Arazo hau barne hartzen duten zein proposamen eta ekimen ezagutzen dituzu?
 - Bi alderdi hauei dagokienez, zein proposamen iruditzen zaizkizu beharrezkoak edo iradokitzaileak?
 - Gaiak
 - Metodologia
3. Taldeka lan egin eta gero bateratu.

2. saioa:

1. Taldeka eta aurreko saioan esan dena kontuan hartuz, 'hiritartasuna ikastetxean eta ikasgelan' gaiaren inguruan diagnostikoa egingo da.
2. Bateratze-lana eta adostea.
3. Kurtso honetako gaiaren aurkezpena: hiritarren Parte-hartzea.

“Hiritartasun unibertsala lortzeko parte hartzea” dokumentua eta galdera edo iradokizunenak barratuko dira.

Dokumentua lantzeko galderak

Gure klaseei dagokienez...

- Zein beste elementu sartuko zenituzke egoeraren diagnostikoan? Zein beste ezaugarri ikusten dituzu zure inguruan? Zein elementu positibo estimatzen dituzu gure munduan? Zein neurritaraino uste duzu diagnostiko honek balio duela zure ikasleen artean?
- Noiz ohartzen zara ikasleek erantzukizun-zentzu handiagoa dutela? Zein egoeratan? Nola susta dezakezu erantzukizuna ikasleen artean? Ikasleak gelan edo ikastetxean parte hartzeko zein beste bide sor daitezke?
- Zein argumentu erabiltzen dituzu ikasleek errespetua, guztien ongizatea eta elkar zaintzarekin zerikusia duten gaietan erantzukizuna izan dezaten? Zein iritzi duzu diagnostiko honekiko? Familiar, ikastetxean, herrian, munduan... nola sentitzen zara zure eskubideak erreklamatzeko eta defendatzeko edo zure erantzukizuna arriskuan ipintzeko eta egoera horiek aldatzeko parte hartzean?

Gure buruari dagokionez...

→ Nire parte-hartzea

Guk baino hobeto inork ez daki zenbatekoa den gure gaitasuna eta parte hartzeko aukera, sarritan eska daitekeena baino harantzago dagoena: Zein dira nire ustez nire erantzukizunak hezkuntza-lanean parte hartzeari dagokionez? Zein daude nire “laneko” erantzukizunak baino harantzago?

Hezkuntza-komunitate baten partaide gisa: partaidetzarako zein bide eta mekanismo sustatu behar direla uste duzu? Nork du erantzukizun hori?

→ Besteen parte-hartzeari dagokionez

Pertsona guztiek parte hartzeko beharraren inguruan gero eta kontzientzia handiagoa dago, eta horrek beste parte-hartzean eta eraginean garrantzi berezia hartzen du (bereziki behartsuenen parte-hartzean). Hezkuntza-arloan ikasleen, gurasoen, irakasle ez direnen, langileen, patronalaren eta abarren parte hartzeaz ari gara. Zein dira parte hartzeko bideak? (kontuan hartu aipatu ditugun talde desberdinak). Benetan zein aukera dituzte eragiteko erabakiak hartzerakoan? Nola susta dezakegu gutxiago parte hartzen duten taldeen partaidetza?

3. saioa:

1. Taldeka, galderak eztabaidatu eta ikastetxean edo hezkuntza-zikloan parte hartzeari buruzko diagnostikoa egin.
2. Bateratze-lana.
3. Helburu nagusiak zehaztu eta erabili beharreko materiala aurkeztu.

Ikastetxea girotzeko posterrak erabiliz gizartearen parte-hartzea modu sekuentzialean, mailakatuan eta koherentean lantzeko, ALBOANek posterrak honako ordena logikoan jartzea proposatzen du:

- Parte-hartzeak bere fruituak ematen ditu
- Gure esku dago gustuko ez duguna eraldatzea.
- Zu gabe ez dago puzzlerik
- Bizi parte hartuz
- Igo eta jaitsi parte hartuz
- Kostatu egiten da, baina merezi du
- Parte hartu bai, baina zein estilorekin?
- Pentsatu pluralean eta eskatu singularrean
- Aztertu parte-hartzearen bideak.
- Guk parte hartzen dugu. Nola? Non? Zertarako? Norekin?

3. Informazio gehiago lortzeko

Ondoren, web orrien zerrenda ematen dizugu. Horieta partaidetzaren inguruko beste baliabide interesgarri batzuk ematen dira eta informazio gehiago lortu ahal izango duzu.

Documentazioa

<http://www.mec.es/cide/rieme/documentos/pmurillo/pmurillo2.pdf> IKASTETXEETAN PARTE-HARTZEARI BURUZKO AZTERKETA. SEVILLAKO UNIBERTSITATEA.

<http://www.mec.es/cide/rieme/documentos/pmurillo/pmurillo2.pdf> IKASTETXEETAN PARTE-HARTZEARI BURUZKO AZTERKETA: LANBIDE ARTEKO LANKIDETZAREN ESPERIENTZIA.

<http://www.campus-oei.org/oeivirt/rie15a03.htm> INSTITUTU ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEEN PARTE-HARTZEA: HAIEN ERREALITATERA HURBILTZEA



<http://www.clacso.org/wwwclacso/espanol/html/libros/juventud/juventud.html> GAZTEEN PARTE-HARTZE SOZIALA ETA POLITIKOA MENDE BERRIAN, LATINOAMERIKAKO IKUSPEGIA

<http://rehue.csociales.uchile.cl/publicaciones/enfoques/02/edu02.htm> ESKOLAREN (PUBLIKOA) EZINBESTEKO PARTE-HARTZEA, TXILEKO IKUSPEGIA.

<http://www.fao.org/Participation/espanol/ourvision.html> PARTE-HARTZEAREN ETA GARAPENAREN ARTEKO EZINBESTEKO LOTURA.

Araudiak

<http://www.mec.es/cesces/2.3.d.htm>. ESTATUKO ESKOLA-KONTSEILUEI BURUZKO INFORMAZIOA.

<http://www.mec.es/cesces/2.4.e.htm>. HEZKUNTZAREN PARTE-HARTZEA EUROPAKO BATASUNEAN

Hezkuntzako esperientziak

<http://www.uv.mx/iiesca/revista/suma34.html> INGURUMENeko HEZKUNTZA-ESPERIENTZIA, PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

<http://www.ericfacility.net/ericdigests/ed432408.html> GURASOEK ESKOLAN DUTEN PARTAIDETZA AZTERTZEN DUEN ARTIKULUA.

<http://www.participacion-ciudadana.or.cr/> COSTA RICAKO HIRITARREK PARTE HARTZEKO PROIEKTUA.

<http://www.campus-oei.org/salactsi/osorio2.htm> URAREN ARAZOAN HIRITARREK IZANDAKO ESPERIENTZIA.

<http://www.cma.junta-andalucia.es/menu04.html> INGURUMEN-HEZIKETAN PARTE-HARTZEARI BURUZKO ESPERIENTZIAK ETA DOKUMENTAZIOA ANDALUZIako JUNTAN.

<http://www.vivalaciudadania.org/todo.htm> PARTE-HARTZEA ETA HIRITARTASUNARI BURUZKO TAILERRAK ETA DINAMIKAK KOLONBIAN.

Parte hartzeko proposamenak

<http://www.pangea.org/ai-cat/educadors/2/textos-actua.html> AMNESTY INTERNATIONAL-EN PROPOSAMENA.

http://espanol.ashoka.org/Public/IG_ParticipacionCiudadana.asp ASHOKA-REN (SUSTATZAILE SOZIALAK) PROPOSAMENA.

<http://www.cje.org/actividades.nsf/sub!readform&cat=participacion&subcat=asociacionismo>. ESPAINIAKO GAZTERIA KONTSEILUARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA HAREN PROPOSAMENAK.

<http://www.enredate.org/esp/htm/index.htm>. UNICEFEN PROPOSAMENA IHESARI BURUZKO KANPAINARAKO.

<http://www.icftu.org/petition.asp?Name=childlabour&Language=ES> CIOSLREN PROPOSAMENA HAURREN LANAREN KONTRAKO KANPAINAN PARTE HARTZEKO.

<http://www.participar.net/> Sareko PARTAIDETZAREN ESPERIENTZIA.

<http://www.unicef.org/voy/es/meeting/lab/labhome.html> HAURREN LANAREN INGURUKO PROPOSAMENA.


http://www.intermonoxfam.org/html/cam_zon.html INTERMON-EN PROPOSAMENA.



Matematika



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Zenbakiak eta datuak behar bezala lantzea eta informazioa antolatzea eta sistematizatzea.
- Grafikoekin lan egitea: datuak irudizatu, horien irakurketa egin esanahia interpretatu eta ondorioak atera.
- Grafiko eta datu estatistikoetatik abiatuz analisiak egitea eta ondorioak ateratzeko eta horiei dagokienez iritzia eratzeko gai izatea.
- Garapenerako Laguntza Ofizialerako herrialdeek esleitzen duten PNGaren ehunekoa handiago dezaten, hiritarren parte hartzeko zein aukera dauden jakitea.
- Gastu militarren eta nazioarteko arma-merkataritzaren aurrean iritzi kritikoa agertzea eta horien kontrako jarrera izatea.

Jarduerak

1 Jarduera: “Laguntza zalantzan jartzea”

Deskribapena: 1.1. fitxako taulan agertzen diren datuetatik abiatuz, ikasleek barra grafikoetan herrialdeek lankidetzarako esleitzen duten PNGaren ehunekoa adieraziko dute; horren aurreratuta ez dauden herrialdeei laguntzeko dena eta GKEen laguntza garbia.

Ondoren, grafikoak alderatu eta interpretatu egingo dituzte, Nazioarteko Laguntza Ofizialerako kapital gehien esleitzen duten herrialdeak identifikatzeko eta behar diren ondorioak ateratzeko.

Azkenik, taldetan bildu eta galdera honi erantzuten saiatuko dira: zer egin daiteke herrialdeek bere PNGaren ehuneko handiagoa garapenerako erabil dezaten? Horretarako, 0,7aren errebindikazioari buruzko informazioa bilatzea proposatzen da. Mobilizazioen jarraipena eta nazioarteko laguntzarako 0,7 esleitzeari buruz biztanleek duten iritziari buruzko zundaketa egitea ere interesgarria izan daiteke.

Materiala: 1.1 eta 1.2 fitxa.

Dinamika: Banakakoa eta taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko bi saio.



2 Jarduera:

“Merkataritza arriskutsua”

Deskribapena: Gastu militarri buruzko azterketa egitea proposatzen da eta arma-inportatzaile eta -esportatzaile handienak diren herrialdeak zein diren ikustea. Hori egiteko, zenbaki batzuk emango zaizkie ikasleei antolatu eta grafikoki adieraz ditzaten.

1 jardueran adierazitako datuetatik abiatuz, hainbat herri armamentuan zenbat inbertitzen duten eta garapenerako zenbat esleitzen duten erkatuko da.

Azkenik, "Armei agur" kanpaina aurkeztuko da. Kanpaina hori lau GKEk antolatu dute armamentu-esportazioak argi eta garbi agertzeko.

Materiala: 2.1 eta 2.2 fitxa. **Dinamika:** Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko bi saio.

Iradokizunak: Zenbakiak landu ondoren, gure herrian jende askori lana ematen dion armagintza industria egoteak sortzen duen interes-gatazkari buruzko eztabaida susta daiteke guztien artean.

1.1. Fitxa

GLBko (Garapen Laguntzarako Batzordea) kide diren herrialdeen laguntza-korronteak

Herrialdeak	PNGaren %	GLOak horren garatuta ez dauden herrialdeentzat guztiarekiko %	GKEen laguntza garbia BPGaren %
Norvegia	0.80	33	0.11
Australia	0.27	21	0.04
Kanada	0.25	17	0.02
Suedia	0.80	29	0.01
Belgika	0.36	25	0.03
Estatu Batuak	0.10	20	0.04
Herbehereak	0.84	25	0.08
Japonia	0.28	15	-
Finlandia	0.31	29	-
Suitza	0.34	30	0.06
Luxenburgo	0.71	32	0.04
Frantzia	0.32	24	-
Erresuma Batua	0.32	31	0.04
Danimarka	1.06	32	0.02
Austria	0.23	23	0.03
Alemania	0.27	23	0.05
Irlanda	0.30	48	0.11
Zeelanda Berria	0.27	24	0.03
Italia	0.13	27	-
Espainia	0.22	12	-

Iturria: Giza Garapenari buruzko Txostena, 2002.

1. Adieraz itzazu barra-grafikotan herrialde bakoitzeko hurrengo datuak:
 - lankidetzarako erabiltzen duten PNGaren ehunekoa.
 - horren aurreratuta ez dauden herrialdeentzako laguntzaren ehunekoa.
 - GKEen laguntza garbiaren ehunekoa.
2. Aldera eta interpreta itzazu grafikoak. Zein herrialdek esleitzen du diru gehiago Garapenerako Laguntza Ofizialerako? Zein ondorio atera dezakezu grafikoetan adierazitakotik?

1.2. Fitxa

Talde-lana

Zer egin daiteke herrialdeek bere PNGaren ehuneko handiagoa garapenerako erabil dezaten? Zer egin da eta orain zer egiten da?

1. Bila ezazue 0,7 errebindikatzeari buruzko informazioa.
 - Zertan datza?
 - Nola sortu zen mugimendua? Zein testuingurutan?
 - Zein konpromiso hartu ziren? Zein bete dira eta zein ez?
2. Egin ezazu mugimenduaren segimendua, sortu zenetik orain arte. Begira itzazue hemerrotekak eta berregin itzazue prentsaren bitartez horren inguruko gertaerak.
3. Egin ezazu zuen hiriko biztanleen artean zundaketa, Barne Produktu Nazionalaren % 0,7 Hegoaldeko herriei emateari buruz zein iritzi duten jakiteko.

2.1. Fitxa

Antola itzazue hurrengo datuak eta adieraz ezazue grafikoki herrialde batzuk arma-merkataritzan inbertitu duten dirua:

Herrialde arma esportatzaileak	milioi dolar
Norvegia	156
Suedia	486
Kanada	152
Belgika	72
Estatu Batuak	4.562
Herbehereak	225
Erresuma Batua	1.125
Italia	358
Suitza	36
Txina	588
Txekiako Errep.	95
Espainia	4
Polonia	44
Errusia	4.979
Alemania	675
Frantzia	1.288
Israel	470
Kanada	230

Herrialde arma inportatzaileak	milioi dolar
Iran	335
Japonia	206
Txina	3.100
Estatu Batuak	114
Erresuma Batua	1.247
Koreako Errep.	401
Turkia	442
Saudi Arabia	143
Portugal	38
Tailandia	360
Espainia	90
Egipto	486
India	1.064
Israel	45
Australia	687
Aljeria	365
Angola	255

Iturria: Giza Garapenari buruzko Txostena, 2002.

Herrialde bakoitzak bere PNGaren zein ehuneko erabiltzen du armak erosteko edo saltzeko?

Aldera ditzagun 1 jarduetan ateratako grafikoak oraingo hauekin.

- Zenbat gastatzen da armatan?, eta zenbat garapenean?
- Zergatik gastatzen da horrenbeste armak erosten?
- Zein ondorio ditu horrek garapenean?

2.2. Fitxa

Zenbaketatik haratago...

Gaindi ditzagun zenbakiak eta lor dezagun nazioarteko arma-salerosketaren pisuari, horren eraginari eta sortzen dituen ondorioei buruzko informazioa.


Arma-salerosketaren berri emateko, hori salatzeko eta gardentasuna eskatzeko kanpainak egiten ari dira. Ezagutzen duzu horietakoren bat?

1994az geroztik, lau GGKE arma arinak kontrolatzeko kanpaina gidatzen ari dira. Armei agur izena du. Lau GKE horiek Amnesty International, Greenpeace, Intemon-Oxfam eta Mugarik Gabeko Medikuek dira. Horietakoren baten web orrian sar zaitezke kanpaina zertan datzan eta zer proposatzen diguten ikusteko.

Biologia



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Ikasitako kontzeptuak, legeak, teoriak eta ereduak egoera errealei eta eguneroko egoerei aplikatzea.
- Ikertzeko trebetasunak nolabaiteko autonomiaz erabiltzea (arazoak planteatzea, formulatzea eta hipotesiak kontrastatzea).
- Informazioa hainbat bide eta kanalen bidez bilatzea eta kritikoki erabiltzea, tratamendu egokia emanez.
- Taldean eztabaidatutako ondorioak argi azaltzea eta detektatutako arazoak konpontzeko ekintza zehatzak proposatzea.
- Elikaduraren kontzeptuan sakontzea eta haren ikuspegi orokorrez jabetzea.
- Hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsonen jateko ohiturei buruz hausnartzea.
- Kontziente izatea, nire dieta zaintzen badut, nire osasuna hobetzeaz gain ingurumenari ere laguntzen diodala.
- Ingurumenarekin lotutako egoera problematikoekiko sentikor izatea eta egoera haiek konpontzeko erantzunak bilatzeko interesa erakustea.
- Herrialde eta eskualde geografikoak haien ingurumen-egoera aztertuz ezagutzea.

Jarduerak

1 Jarduera: “Jarrera hartzea”

Deskribapena: Zer dira elikagai transgenikoak? Hasteko, gai honi buruz hitz egingo da, eta ikasleei ikerketa bat egiteko proposatuko zaie, osasunaren eta ingurumenaren alorretan erabiltzeari buruzko iritzia osa dezaten. Ondoren, ikasle bakoitza transgenikoak erabiltzearen alde edo kontra agertuko da. Talde bakoitza elkartu egingo da eta eztabaidan zein bost punturi buruz hitz egingo duten proposatuko dute. Jarrerak parekaturik ez badaude, ikasleak bi taldetan ausaz banatuko dira. Kasu horretan, emandako rola koherentziaz defendatzea da garrantzitsua, ez iritzia.

Eztabaida hasi aurretik, talde bakoitzak zein punturi buruz hitz egin behar den jakinaraziko dio besteari.

Ekintza amaitzeko, iritzi-artikulu bat idatziko dute eta sareko foroaren batera bidali ahal izango dute.

Materiala: Internet, bibliografia.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko bi saio.

Irakokizunak: Gaiarekin lotutako kontsultarako web orri batzuk:

- <http://milksci.unizar.es/transge.html> Informazio orokorra
- <http://www.ecoport.al.net/temas/transgenicos.htm> Informazio laburra eta foroak.
- <http://mivivero.tripod.com/ecologia/transgen.htm> Hazkuntza eta merkaturatzeari buruzko datuak
- <http://ww2.grn.es/avalls/agenlink.htm> Zerikusia duten orrietarako estekak

2 Jarduera:

“Ekologiari buruzko konbentzioa: ekintzarako proposamenak”

Deskribapena: Jarduera hau rol-joko bat da. Ikasleak bost taldetan banatuko dira eta talde bakoitzak herrialde hauetako bat ordezkatu du: Danimarka, Brasil, AEB, Japonia eta Aljeria. Talde bakoitzak ingurumenean adituak diren talde tekniko baten rola hartuko du. Talde hori bere herrialdeko gobernuak egoera ekologikoa ikertzeko kontratatutako taldea izango da. Taldeak herrialdeko egoera ikertu eta aztertu beharko du eta, horretarako, alderdi hauetan oinarrituko da: klima-aldaketa, hazkunde demografikoa, espezieen suntsipena, energia berriztagarriak eta beste hainbat alderdi, eta horrek ingurumenean duen eragina.

Azkenik, talde bakoitzak bozeramaile bat aukeratuko du ekologiari buruzko nazioarteko konbentzioan aztertutako ondorioak azaltzeko. Horrez gain, hiritar ekintzak proposatuko dira diagnostikoa detektatutako arazo batzuk konpontzeko.

Materiala: 2.1 fitxa, Internet.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko hiru saio.

Iradokizunak: Biltzarraren amaieran guk klase edo ikastetxe gisa edo beste modu batean geure gain har ditzakegun hiritar ekintzarako proposamenak ados daitezke.



2.1. Fitxa

Ingurumenean adituak garen talde bat gara. Gure herrialdeko gobernuak ingurumenaren egoera aztertzeko kontratatu gaitu. **Alderdi** batzuen eta alderdi horiek ekologian duten eraginaren diagnostikoa egiteko eskatu digu:

- *Hazkunde demografikoa.*
- *Animalia- eta landare-espezieen suntsipena.*
- *Klima-aldaketa.*
- *Poluzioa.*
- *Energia berriztagarriak erabiltzea.*
- *Birziklatzea.*

Adituak garenez, guretzat interesgarriak diren beste alderdi batzuk ere sar ditzakegu. Informazioa lortzeko, Internet erabil dezakegu eta ordezkatzan dugun herrialdeari eta ekologiar buruzko informazioa bila dezakegu.


Diagnostikoa egindakoan eta gure ikerketa osatzeko, **hiritar ekintzarako funtsezko puntu** batzuk proposatu ditugu ingurumenari laguntzeko, detektatu ditugun mehatxuei erantzuteko asmoz.

Azkenik, gure ondorioak bateratu egingo ditugu **ekologiari buruzko nazioarteko konbentzioan**. Batzar horretara beste lau herrialderekin batera gonbidaturik joan gara. Bertan, taldeko bozeramaileak ondorioak eta hiritar ekintzarako proposamenak azalduko ditu.

Ekonomia



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Zorra zer den ezagutzea eta aztertzea, horrek eragiten dien pertsona eta herrialdeen ikuspuntutik.
- Informazio-iturriak kritikoki erabiltzea.
- Gaur egungo garapen-eredua zalantzan jarrita, kanpo-zorra zilegi den edo ez balioestea.
- Zorraren arazoan parte hartzeko bideak edo jardunbideak aztertzea.
- Zorraren arazoan aktiboki parte hartzea, iritzia emanez eta jarrera bat hartuz.
- Sentsibilizazio-kanpaina bat autogestionatzea.
- Helburu berarekin, ahaleginak eta eginkizunak elkarlanean antolatzea eta koordinatzea.

Jarduerak

1 Jarduera: “Zorrarekin harremanetan”

Deskribapena: Jarduera hau ariketa erraz batekin hasten da, ikasleek kanpo-zorrari buruz aurrez dituzten ideiak detektatzeko. Horretarako, talde txikietan elkartuko dira eta 1.1 fitxako galdera-sorta beteko dute. Ondoren, erantzunak bateratu egingo dira eta, gaian sartzeko, irakasleak kanpo-zorrari buruzko funtsezko ideia batzuk azalduko ditu.

Gero, ikasleei munduan egoera hori zergatik sortzen den eta zein ondorio dituen aztertzeko eskatuko zaie. Lan hori taldeka egingo da. Horretarako, 1.2 fitxan agertzen diren datuak emango zaizkie.

Azkenik, kanpo-zorraren arazoa arintzeko herritarrek nola parte har dezaketen pentsatu beharko dute: pertsonalki eta modu antolatuan zer egin daitekeen eta zein bide dauden lehen-dik (1.3 fitxan agertzen diren jarraibideei jarrai diezaiekete).

Materiala: 1.1., 1.2. eta 1.3. fitxak.

Dinamika: Taldekakoa.

Iraupena: 50 minutuko bi saio.

Iradokizunak: Gai honi buruz informatzeko hainbat iturri kontsulta ditzakete:

- ALBOAN (2000). *Zor zoroa. Kanpo zorraren inguruan lan egiteko proposamen didaktikoa* ALBOAN: Bilbo.
- Atienza, J. (1998). (*La deuda externa y los pueblos del Sur. El perfil acreedor de España.*) Manos Unidas et al: Madrid.
- Bárcena, I. (2000). (*La deuda ecológica: la contradenda.*) HIKA.
- Sebastián, L. (1999). (*El perdón de la deuda externa, en Derechos Humanos y Desarrollo.*) Mensajero.

2 Jarduera: “Informatzea eta sentsibilizatzea”

Deskribapena: Ikasleei ikastetxean kanpo-zorrari buruzko sentsibilizazio-kanpaina egitea proposatuko zaie. Horretarako, gai honen inguruan informazioa jaso beharko dute. Ondoren, klase gisa, kanpaina nola egin erabaki beharko dute: zein den helburua, zein baliabide erabiliko dituzten, zein estrategia... (informazio-kartelak egitea, liburuxkak, beste klase batzuetan informatzeko hitzaldi laburrak ematea informatzeko...). Erabakiak hartutakoan, taldeka antolatuko dira kanpaina eraginkorragoa izan dadin.

Materiala: Kanpainarako beharrezkoa dena.

Dinamika: Taldekakoa.

Iraupena: 50 minutuko bi saio.

Iradokizunak: Diseinatuko den kanpainak, salatzeaz gain, proposamenak ere egin beharko ditu. Hau da, parte hartzeko proposamen zehatzak egingo dira beste pertsona batzuei funtsezko jarduera-ereduak emateko.

3 Jarduera: “Manifestua”

Deskribapena: Ikasle guztien artean kanpo-zorra ezeztatzearen aldeko manifestua idatziko dute eta bi zatitan banaturik egongo da: printzipioen adierazpena (zer iritzi dugun arazo honetaz) eta ekin-tzarako proposamenak (arazoari nola aurre egin).

Materiala: 3.1. fitxa.

Dinamika: Taldekakoa.

Iraupena: 50 minutuko saio bat.

Iradokizunak: Manifestua idatzi aurretik, talde txikitan elkar daitezke gai honi buruz hitz egiteko eta printzipio eta ekin-tzarako proposamenei buruz eztabaidatzeko.

1.1. Fitxa

Galdera-sorta

Taldeka, balioetsi ondorengo baieztapenak egiazkoak edo gezurrezkoak diren

1. Herrialdeetako ekonomiak maileguei esker funtzionatzen du.
2. Hegoaldeko herrialdeak garatzeko funtsezkoa da haiek industrializatzea, azpiegitura handiak sortzea...
3. Estatu Batuak kanpo-zor handiena duen herrialdea da mundu mailan.
4. Kanpo-zorra asko jaitsi da azken 10 urteetan.
5. Hegoaldeko herrialdeen kanpo-zorraren arazoa ez da soilik arazo ekonomikoa, baita politikoa, historikoa eta etikoa ere.
6. Interesetatik eratorritako ordainketa-eskakizunek ez diote uzten herrialde zordunei oinarritzko zerbitzuetan (hezkuntza, osasuna...) inbertitzen.
7. Iparraldeko herrialdeek eta haien sistema ekonomikoek zorraren premia dute Hegoaldeko herrialdeak beren mende edukitzeko.
8. Hegoaldeko herrialdeak zorretan egotearen arrazoi nagusia luxuzko produktuen kontsumoa da.

ERANTZUNAK: 1. G / 2. G / 3.E / 4. G / 5. E / 6. E / 7. E / 8. E

Gero irakurtzeko argibide batzuk

50eko eta 60ko hamarkadetan, garatze-garaia, hainbat herrialdealdi kolonialetik irteten ari ziren garatze-ko asmoz. Orduan, ideia nagusia hau zen: garapenak herrialde aberatsetan zegoena esan nahi zuen, hau da, industrializazioa, azpiegitura handiak sortzea... Logikoki, herrialde horiek ezin zituzten inbertsio horiek egin eta, horregatik, kanpo-finantzaziora jo zuten. Iparraldeko herrialdeek finantzazio hori garapena bultzatzeko egin zuten.

70eko hamarkadan zorrak sortu zituzten hainbat mailegu egin ziren. Maileguak irizpide handirik gabe eman ziren, herrialde horiek porrot egin gabe dirua bueltatu ahal izango zutelarentzat. Bestalde, mailegu asko azpiegiturako lan handiak eta gastu militarrik egin eta armak erosteko izan ziren. Gainera, gobernari batzuek dirua arduragabe onartzen zuten, beraien ahalmenen gainetik.

80ko hamarkadaren hasieran, maileguen interesek aldaketa handia jasan zuten eta izugarri igo ziren. Herrialde mailegu-hartzaileek ordaindu beharreko prezioa izugarri igo zen. Gainera, iparraldeko herrialdeak krisian zeuden eta hegoaldeko produktuak erosteari utzi egin zitoten. Erosketa horien bidez, hegoaldeko herrialdeek maileguak ordaintzeko dibisa-kantitate handia lortzen zuten.

Egoera horren aurrean, herrialde batzuek ez ordaintzea erabaki zuten eta iparraldeko bankuek Nazioarteko Moneta Funtzari (herrialde aberatsenak kontrolatutako alderdi anitzeko erakundea) esku hartzeko eskatu zitoten krisia amaitzeko. NMFk Doikuntza Estrukturalerako Planak (DEP) abian jarri zituen arazoa 'konpontzeko', hau da, zorra ordainduko zutela bermatzeko.

Zorra handitzen joan da azken urteotan. Oraindik ere irtenbideen zain dagoen arazoa da. Interes eta zerbitzuetatik eratorritako ordainketa-eskakizunen ondorioz, ezinezkoa da oinarritzko zerbitzuetan inbertitzea eta miseria eta gosea ugaritzen duten politika ekonomikoak ezartzen dira.

Zorrarena finantza-arazoa baino gehiago, oinarrian, politikoa da, eta ikuspegi horretatik egin behar zaio aurre. Iparraldeko herrialdeek zor hori behar dute hegoaldeko herrialdeak beren mende edukitzeko.

Gezurra badirudi ere, Estatu Batuek dute kanpo-zorrik handiena. Dena den, zor jasangarria da, munduko estaturik aberatsena baita eta gaur eguneko eta etorkizuneko kanpoko betebeharrak guztiak bete baititzake, arintzeko neurriak hartu gabe edo zorrak berriro programatu gabe eta hazkunde ekonomikoa arriskuan jarri gabe, beste hainbat herrialdeek bezala.

1.2. Fitxa

Neurritz gaineko zifra batzuk!!!

Bazenekien....

- Munduko **225 biztanle** aberatsenek bilioi bat dolar baino gehiagoko aberastasun konbinatua dutela, hau da, munduko biztanle behartsuenen % 47ren (hau da, 2.500 milioi pertsonaren) urteko sarreren kopuru bera?
- **15 pertsona** aberatsenek Saharaz hegoaldeko lurraldeko Nazioarteko Produktu Gordina baino aktibo handiagoa dutela?
- **85 pertsona** aberatsenek Txinako (1.200 milioi biztanle) Barne Produktu Gordina baino aktibo handiagoa dutela?

Taldeka pentsatzeko eta ikertzeko

- Zer da zorpetzea? Nori eragiten dio kanpo-zorrak?
- Zein dira kanpo-zorren zergatiak?
- Zein ondorio ditu?
- Bidezkoa da kanpo-zorra?
- Zer zerikusi du gurekin? Zer egin dezakegu?

1.3. Fitxa

1. Ikus dezagun nola har dezakegun parte herritar gisa kanpo-zorren arazoan. Zer egin dezakegu alderdi hauei dagokienez?

- Nazioarteko elkartasunerako erakundeen kide izatea
 - GGKEan afiliatzea.
 -
 -
- Nazioarteko desberdintasunez jabetzea
 - Komunikabideetan presioa egitea.
 -
 -
- Nazioarteko elkartasunerako taldekako ekintzak burutzea
 - Kontsumo kritikoa eta ekologikoa.
 -
 -
- Bitartekotza politikoak eta sozialak
 - Gobernuaren garapenerako lankidetzak politikei buruz informatzea.
 -
 -

2. Informazio gehiago edukitzeko, nazio mailan eta nazioartean arazo honi aurre egiteko zein ekintza egi-
ten ari diren eta herritarroi zein proposamen egiten diguten ikusiko dugu. Honako web orri hauek bisita
ditzakegu:

- <http://www.nodo50.org/juspax>
- <http://www.rcade.org>
- <http://www.consultadeuda.org>
- <http://www3.planalfa.es/deudaexterna/>
- <http://deuda.findehere.com/>
- <http://www.jesuit.ie/ijnd/>
- <http://www.portoalegre2003.org/publique/index04E.htm>

Zein ekimen bultza dira kanpo-zorrari aurre egiteko?

Zein kanpaina egin dira? Lekua, parte hartu duten erakundeak...

Zein da zuen ustez interesgarriena?

Zein proposamen egiten dizkigute herritarroi? Zein har ditzakegu gure gain?

3.1. Fitxa

Kanpo-zorra ezeztatzeko manifestua


Gure iritzia

Honako hau proposatzen dugu:

Hizkuntza eta literatura



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Ahozko eta ahozkoa ez den adierazpenaren garrantzi sozialaz eta pertsonalaz jabetzea.
- Ahozko eta ahozkoa ez den adierazpena ondorengo prozesuetarako erabiltzea: komunikatzeko, gauza berriak ikasteko, errealitatea ulertzeko eta aztertze eta ekintzak arrazionalki antolatze.
- Hizkuntzaren erabilera sozialak kritikoki aztertzea, norberaren ekoizpenean jarrera diskriminatzaileak adierazten dituzten erabilerak zuhurki eta kontzienteki ez erabiltzeko.
- Interesez parte hartzea eta aktiboki entzutea.
- Parte hartzeko moduak ikastetxeko martxan probatzea.

Jarduerak

1 Jarduera: “Eztabaida edo borroka?”

Deskribapena: Dinamikari ekiteko, ahozko eta ahozkoa ez den hizkuntzak komunikazioan duen garrantzia azalduko da.

Aurrez telebistako eztabaida-saio bateko eztabaida edo 15 minutu inguruko eztabaida-zatia grabatuko da. Ikasleak bi taldetan banatuko dira eta bideo-emanaldian alderdi desberdinei buruzko datuak jasoko dituzte. Talde batek eztabaidan parte hartzen duten pertsonen keinuei buruzko datuak hartuko ditu, noiz egiten dituzten eta zein eragin duten. Beste taldeak parte hartzen duten pertsonen buruzko beste datu batzuk jasoko ditu: keinua zenbat aldiz egiten duten, zein tonu erabiltzen duten, zein ekarpen egiten dituzten, zein interesekin esaten duten, entzuteko duten gaitasuna. Beharrezkoa izanez gero, bideoa bitan ikus daiteke.

Ondoren, jasotako datuak sintetikoki bateratuko dira eta rola identifikatzen saiatuko dira. Orientazio gisa, 1.1 fitxa erabil daiteke datuak jasotzeko eta 1.2 fitxa hausnartzeko.

Materiala: 1.1 eta 1.2 fitxak, papelografoa, errotuladoreak, bideoa eta telebista.

Dinamika: Taldekakoa.

Iraupena: 50 minutuko saio bat.

Iradokizunak: Ariketa zerbait alda daiteke, ahozkoa ez den komunikazioari buruzko artikuluetan eta testuetan oinarrituz, lan egin, bideoa erabili beharrean.

Ahozkoa ez den komunikazioari buruzko web orri interesgarri batzuk:

<http://www.euskalnet.net/jsanchezb/Comunicacionnoverbal.htm>

<http://www.multiteca.com/Apuntes/Documentos/D36-1.htm>

<http://www.pab.asn-wien.ac.at/~rieder/iltepf4.htm>

<http://usuarios.iponet.es/casinada/0901com.htm>



2 Jarduera:

“Telebista-estudioa”

Deskribapena: Ikasleak bi taldetan banatuko dira eta eztabaida bat egingo dutela azalduko zaie. Eztabaida hori bideoz grabatuko da. Gaia ikastetxean antzematen diren gatazkak izango dira. Eztabaidari ekiteko, ikasleentzat garrantzi gehiena duten gatazkei buruz hainbat ideia proposa daitezke (2.1 fitxan azaltzen den teknika). Eztabaidak gehienez 20 minutuko iraupena izango du eta denbora horretan arazoen matrizea egin beharko dute (2.2 fitxa).

Bi taldeak grabatutakoan, bakoitzak bere aldetik (ahal bada) bideoa aztertuko du. Ondoren, arazoen matrizea aurkeztuko dute eztabaidako ondorioak azaltzeko.

Jarduerak bi helburu ditu. Batetik, komunikatzeko modua aztertzea (txandak errespetatzen diren, zein tonutan hitz egiten den, noiz eta zergatik sortzen den tentsioa, eztabaidak aurrera noiz egiten duen, noiz gelditzen den) eta taldearen barruan agertzen diren rolak aurkitzea (1. jarduerak fitxak erabil daitezke). Gauza ez da etiketak jartzea, taldeko kide bakoitzaren motibazioak, interesak eta ekarpenak ezagutzea baizik. Bestetik, helburua da parte hartzeko ariketa bat egitea. Bertan ikastetxeko martxan eraginkortasunez parte hartzeko modu bat probatuko da.

Beraz, jarduera interesgarria da, nola komunikatu jakiteaz gain, arazoen matrizea azaldu baitaiteke eta proposamen bakoitzaren alderdi positiboak ere azpimarra baitaitezke.

Materiala: Papelografoa, errotuladoreak, bideo-kamera, bideo-zintak, bideoa eta telebista.

Dinamika: Taldekakoa.

Iraupena: 50 minutuko bi saio.

Iradokizuna: Ikasleek arazoen matrizea ikastetxeko zuzendaritzari erakuts diezaioke.

1.1. Fitxa

ROLAK

TIPOLOGIA	Parte-hartzeak	Interesa	Ekarpenak	Entzutea
Aginpidea	Zuzendu egiten du	Formalak	Bideratu egiten du	Aktiboa
Positiboa	Altua	Altua	Oso altua	Aktiboa
Negatiboa	Altua	Baxua	Ertaina	Pasiboa
Moderatzailea	Ertaina	Altua	Baxua	Aktiboa
Lotsatia	Oso baxua	Ertaina/altua	Baxua	Aktiboa
Hiztuna	Oso altua	Ertaina	Baxua	Pasiboa
Adia galduta	Oso baxua	Batere ez	Batere ez	Pasiboa
Itxia	Ertaina	Ertaina	Ertaina	Pasiboa
Aurkakoa	Oso altua	Ertaina	Altua	Aktiboa

<http://teletel.terra.es/personal/rsotillo/roles.htm>

1.2. Fitxa

Bideo-proiektzioaren ondorengo galderak

- Zein rol dira egokiak parte-hartzea bultzatzeko? Zeinek oztopatzen dute? Zergatik?
- Oro har, zein jarrera ez dira positiboak eta zeinek bultzatzen dute eztabaida eta parte-hartzea?
- Zein keinu errepikatzen dira gehien? Lortu duzu esanahia argitzea?
- Rolak batekin identifikatzen zara?

2.1. Fitxa

Ideia jasa

Helburua: Informazioa taldean lan eginez azkar lortzea.

Metodologia: Dinamikari ekiteko, nahi den gaiari buruz galdera irekia egingo da eta galdera hori idatzi egingo da.

Adibidez: Zerk sortzen du gatazka ikastetxean eta nor dago tartean?

Parte-hartzaileek ideiak txarteletan idatziko dituzte. Txartel bakoitzean ideia bakarra idatziko da.

Bideratzaileak txartel guztiak bilduko ditu eta denek ikusteko moduko lekuan (panelean, arbelean, horman) ipini-ko ditu parte-hartzaileek emandako ideia guztiak ikus ditzaten. Ondoren, txartel guztiak ozen irakurriko dira.

Ideia bera adierazten duten txartelak batu egingo dira. Parte-hartzaileak ados badaude, errepikatutako txartelak kendu egingo dira.

Azkenik, taldeak erabakiak hartuko ditu adierazitako ideien arabera.

2.2. Fitxa

Gatazken analisia¹

Helburua: Ikastetxeko arazo nagusiak zehaztea.

Metodologia: Hasteko, alderdi hauek finkatu behar dira:

- gatazkek zein parametrotan oinarritu nahi diren, hau da, ideia-jasan jaso diren eta detektatu diren arazo-motak.
- tartean dauden agenteak (ikasleak, irakasleak, gurasoak, irakasle ez diren langileak, zuzendaritza).

Behin bi alderdi horiek zehaztutakoan, papelografo batean bi sarrerako matrizea prestatuko dugu: alde batean gatazkek eta bestean egileak.

Parametro eta agente bakoitzarentzat gatazkan zenbateraino sartuta dauden zehaztuko da. Izartxoak intentsitatearen arabera marka ditzakegu (*baxua, **altua, ***oso altua).

Amaieran, ikastetxeko arazoak erakusten dituen diagrama lortuko da. Konpara ditzagun bi taldeen emaitzak eta horrek dakartzan ondorioei buruz hitz egin eta zuzendaritzan nola aurkeztu erabaki dezagun.


Eragileak \ Gatazkek	Ikasleak	Irakasleak	Zuzendaritza	Gurasoak
Ikastetxeko zikinkeria	***	*	**	-
Giroa	**	**	**	*
...				

¹ Iturria: Frans Geiffus (1996), *Ochenta herramientas para el desarrollo participativo*, caja de herramientas bilduma 2. zk., Servicio Jesuita a Refugiados, Kolonbia.

Filosofia



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Hiritarren partaidetza prozesu gisa ulertzea eta ez desafio estatiko gisa.
- Pertsonen parte-hartzea haiek prozesuan duten erabaki-mailak zehazten duela ulertzea.
- Mundu mailako bizikidetasuna sortzeko parte-hartze aktiboa baloratzea. Bizikidetasun hori giza eskubi-deen errespetuan eta natura eta bakearen defentsan oinarritzen da.
- Adimena lantzeko oinarritzko prozedurak erabiltzea: informazioa bilatzea, zuzenean behatzea, kontrastatzea, aztertzea, laburtzea eta kritikoki aztertzea.
- Erabakiak taldean hartzeko prozesuetan aktiboki parte hartzea diagnostikoaren, analisi kritikoaren eta hausnarketaren bidez.
- Pentsatzeko estilo pertsonala eta estilo hori ahoz zein idatziz garbi eta koherentziaz adierazteko gaitasuna garatzea.

Jarduerak

1 Jarduera: “Parte-hartzearen eskailera”

Deskribapena: Gaian sartzen joateko, hainbat ideia emango dira parte-hartzeak zer esan nahi duen jakiteko. Ideiak aurkeztu ondoren, esanguratsuenak aukeratuko dira partaidetza-motak, -lekuak eta -moduak bereizteko. Gero, ikasleei autoanalisi egiteko proposatuko zaie, familian erabakiak hartzerakoan duten partaidetza-maila balioztatzeko. Ikasle bakoitzak familia osoari eragiten dion egoera bat hautatu eta kide bakoitzak erabakiak hartzeko duen partaidetza-maila ebaluatu beharko du. 1.1 fitxa gida gisa erabil daiteke.

Ondoren, ikasle bakoitzari 1.2 fitxa banatuko zaio partaidetza-mailari buruz informatzeko. Testua banaka irakurriko dute eta alderdi garrantzitsuenak azpimarratuko dituzte. Amaitutakoan, bateratze-lana egingo da gaiari buruz hitz egiteko.

Materiala: 1.1. eta 1.2. fitxak.

Dinamika: Banakakoa eta taldekakoa

Denbora: 50 minutuko saio bat.

Iradokizunak: Ariketarako dokumentazio osagarri gisa, partaidetzari buruzko artikulua hau irakurtzea komeni da: Exigencias de la participación, SIC aldizkaria, 2001eko apirila, 633 zk., 98-99 orrialdeak. Gumilla Zentroa; web orri hau irakurtzea ere komeni da:

http://www.gumilla.org.ve/SIC/SIC_ind/sic_ind_inicial.htm.

Gainera, parte-hartzearen eskailera islatzen duen poster bat ere badago. Poster hori ere erabil daiteke lan egiteko.



2 Jarduera:

“Sarerratuak”

Deskribapena: Gaur egun, teknologia berriek garrantzi handia dute, zalantzarik gabe. Internet gaur informazioaren, komunikazioaren, trukatzearen eta beste hainbat hitzen sinonimoa da pertsona askorentzat. Beste hainbat baliabide eta tresnaren antzera, Internet parte-hartzailea da. Ildo horri jarraituz, ikasleei sarean gune bat sortzeko proposatuko zaie hiritarren partaidetzarako eta informazioa trukatzeko, dokumentazio-zentro baten eta eztabaida-foro baten bidez. Beraz, gune horren xedea batak bestearengandik ikastea da eta proposamen sozialak taldean sor-daitezen bultzatzea.

Web orria sortu aurretik, ikasleak taldeka jarriko dira eta sarearen oso antzekoak diren beste baliabide eta ekimenen egoeraren diagnostikoa egin eta aztertuko dute. Ikertutakoaren arabera, ezaugarri horiek dituen gunea sortzeko aukerari buruz hitz egin eta erabaki bat hartu beharko dute.

Materiala: 2.1. fitxa. Internet.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko bi saio.

1.1. Fitxa

Egoera		
Familiako kidea	Zein da bere parte-hartzea?	Azkenean, nork erabakitzen du?
.....
.....
.....

Taldean pentsatu eta hitz egiteko

- Normalean, nork hartzen ditu erabakiak zure familian? Kideen artean banatzen den prozesua da edo normalean pertsona batek hartzen du erabakia?
- Egoeraren arabera, erabakiak modu batera edo bestera hartzen dira? Pertsona batek edo beste batek hartzen ditu? Edo egoerak ez du eraginik?
- Zenbatekoa da zure parte-hartzea familian erabakiak hartzerakoan? Zein da kide bakoitzaren zeregina?
- Familian erabiltzen dituzuen mekanismoak edo estrategiak egokiak direla uste duzu? Zergatik?
- Zure ustez, parte-hartzeak pertsona guztiek gauza guztiei buruz erabaki behar dutela esan nahi du?

1.2. Fitxa

Zer da parte-hartzea?

Parte-hartzeak hainbat definizio ditu. Pertsona batzuen ustez parte-hartzea dena beste batzuen ustez manipulazioa edo pasibotasuna besterik ez da.

Parte-hartzea ez da desafio finko bat, prozesu bat baizik. Prozesu horren bidez, pertsonok partaidetzamailla handiagoa edo txikiagoa lor dezakegu. Horregatik, “parte-hartzearen eskailera” erakusten dugu. Eskailera horrek pixkanaka pasibotasunetik prozesuaren ia kontrol osoa izatera pasa daitekeela adierazten du.

Eskaileran pertsonen parte-hartzea haiek prozesuan duten erabaki-mailak zehazten duela ikus dezakegu. Hori baliozkoa da talde bateko kideen artean zein haien eta erakundeen artean.

Parte-hartzearen eskailera urratsez urrats igotzen saia gaitzke. Arrakasta, besteak beste, jendearen antolaketa araberakoa izango da, baita erakundeen malgutasunaren eta eragile guztien erabilgarritasunaren araberakoa ere, teknikoetatik abiatuz. Horiek aldatu egin beharko dituzte jarrera eta lanerako metodo batzuk.

Parte-hartzearen eskailera

Pasibotasuna: pertsonak informazioa ematen zaienean parte hartzen dute. Ez dute inolako eraginik erabakietan eta proiektuaren inplementazioan.

Informazio-iturria: pertsonak inkestak erantzunez parte hartzen dute. Ez dute eragiteko aukerarik, ez eta informazioari emango zaion erabileran ere.


Kontsulta bidezko parte-hartzea: pertsonak kanpoko agenteen bidez egiten zaie kontsulta. Haien ikuspuntua entzuten dute, baina horrek ez du eraginik ondoren hartuko diren erabakietan.

Sustagarrien bidezko parte hartzea: pertsonak lana edo beste baliabide batzuk eskainiz parte hartzen dute sustagarrien truke. Proiektuak pertsonen parte-hartzea eskatzen du, baina horrek ez du eragin zuzenik erabakietan.

Parte-hartze funtzionala: pertsonak lan-taldeak osatuz parte hartzen dute, proiektuaren aurrez zehaztutako helburuei erantzuteko. Ez dute eraginik formulazioan, baina kontuan hartzen dira ikuskapenean eta jarduerak doitzean.

Parte-hartze interaktiboa: herriko talde antolatuek proiektuaren formulazioan, inplementazioan eta ebaluazioan parte hartzen dute. Horrek irakaskuntza-ikaskuntza prozesu sistematikoak eta egituratuak eta proiektuaren kontrola pixkanaka hartzea suposatzen du.

Autogarapena: herriko talde antolatuek erabakiak kanpoko esku-hartzearen zain egon gabe hartzen dituzte. Parte-hartzeak aholkularitza eta bazkide gisa egiten dira.



Frans Geilfus (1996). *Ochenta herramientas para el desarrollo participativo*. Caja de Herramientas bilduma 22. zk. Servicio Jesuita a Refugiados: Kolonbia



2.1. Fitxa

Interneten gune berri bat sortzea proposatzen dizuegu. Gure helburua ikuspuntuak kritikoki trukatzeko eta proposamen alternatiboak taldean egiteko bidea irekitzea da. Proposamen horiek mundu mailako biziki-detasuna sortzearen ingurukoak izango dira eta giza eskubideen, eskubide indibidualen eta kolektiboen eta naturaren eta bakearen defentsan oinarriturik egongo dira.

Web orriak zerbitzu hauek eskainiko ditu:

- Baliabide bibliografikoak dituen dokumentazio-zentroa.
- Eztabaida-foro irekia.

Gunea sortu aurretik, erabakia hartzeko galderak batzuk egitea komeni da. Horretarako, aurrena sarean honen antzeko zein ekimen dauden aztertuko dugu.

Orain, taldeka, erabakiak hartzeko baliagarri izango zaizkigun galderak egingo ditugu:

- Une honetan, beharrezkoa da honelako sare bat? Ez daude sare gehiegi eta informazio gehiegi Interneten?
- Zerk justifikatzen du sare hau sortzea?
- Nola bereiz daiteke antzeko beste sareetatik?
- Nola sor dezakegu gune kritiko eta demokratiko bat lehendik dauden teknologiei ahalik eta probetxu gehiena ateraz?
- Zerk irten du ongi eta zerk ez antzeko ekimenetan?
- Nola berma daitezke kalitatea, aniztasuna eta jarraipena?
- Nola lor daiteke gune integratzailea, hainbat pertsonak, taldek eta erakundek parte hartzen dutena?
- Nola lor daiteke hainbat eragile sozialek guztientzako foro batean parte hartzea mesfidantzak eta erreminak gaindituz?

Proposatutako galderak honelako gune batek Interneten duen bideragarritasuna eta zentzua aztertzeraz bultzatzen gaituzte.


Ezaugarri hauek dituen web-a interesgarria eta beharrezkoa dela eta egin daitekeela uste dugu?

Nola susta daiteke bertan parte hartzea?

Historia



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Trantsizioaren aurreko garaiari buruzko ezagutzak sendotzea.
- 1975. urtearen ondorengo berreskurapen demokratikoa aztertzea eta oraingo munduko egoera.
- Ikerketa txiki bat planifikatu, egin eta horri buruzko ondorioak aurkeztea, agiri- eta historia-iturriak erabiliz.
- Aldaketa-prozesuren batean gertatzen den kausalitate anizkoitza aztertzea eta maila guztiak hartuko dituen ikuspegi eta ulermen globalaren barruan kausa bakoitzak duen pisuaren eta garrantziaren balio-espina.
- Iraganarekiko interesa agertzea oraina ulertu ahal izateko.
- Arazoak eta gatazkak konpontzeko biderik egokiena elkarrizketa- eta eztabaida-jarrerak direla aintzat hartzea.
- Parte-hartze aktiboaren garrantziaz jabetzea arazo kolektiboetan eta ondorengo balioak defendatzen dituzten programa eta ekintzetan: bakea, justizia, berdintasuna eta bizi-baldintzak eta ingurumena hobetzea.

Jarduerak

1 Jarduera: “Memoria freskatzen”

Deskribapena: Ikasleei denboran zehar bidaiatzea eta urte batzuk atzera egitea proposatzen zaie, gure historia gertukoenean murgiltzeko. Duela 30 urteko egoera nolakoa zen aztertzea proposatzen da eta orduko familia-, politika-, gizarte- eta ekonomia-egoera oraingoarekin alderatzea.

Horretarako, garai hura islatuko duen pelikula bat eman daiteke edo "Cuéntame cómo pasó" serieko atal bat erabil daiteke.

Gaia aztertu ondoren trantsizioaren aurreko garaia hobeto ezagutzeko erabil daiteke jarduera, edo aztertzen hasi aurretik gaian kokatzeko. Edonola ere, parte hartzeko proposamen berriak planteatzeko memoriak duen garrantziari buruz hausnartu ere planteatu daiteke.

Materiala: Bideoa, telebista, 1.1 fitxa.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko bi saio.

Iradokizunak: Garai hartako titulu zinematografikoak gogoraziko dizkiguten eta oroitzapen nostalgikok ekarriko dizkiguten web orrietara ere sar daiteke.

<http://www.cyberclara.com/nostalgia-cine-carteles.htm>

<http://www.teacuerdas.com/>

2 Jarduera:

“Trantsizioko mugimenduak”

Deskribapena: Trantsizio garaian sortu ziren edo indartu ziren mugimenduei buruzko ikerketa-lana egingo da. Ikasleak lan-taldetan banatu eta, lehenengo, hainbat mugimendu proposatuko zaie azter ditzaten, eta ondoren, taldeei esleituko zaizkie. Talde bakoitzak berari dagokion mugimenduaren jatorria eta historia aztertu beharko du. Aztertu ondoren, talde bakoitzak besteei azalduko die. Aurkezpenak ikusizko baliabidez laguntzea komeni da eta horma-irudiak, bideoak eta errepresentazio-teknikak erabiltzea.

Materiala: 2.1. fitxa eta azalpen bakoitzean behar den materiala.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko bi saio.

Iradokizunak: Gaia azaltzean erabil daitezkeen metodologia hau izan daiteke: mugimendu baten jatorria gogoratzuz eta oraingo egoera azalduz teleberri bat egitea eta mugimenduaren historia erakusteko irudiak eta musika erabiltzea. Auzoko herri-mugimenduen (auzo-elkarteen) memoria edo besteren bat berreskuratzea proposa daiteke.

1.1. Fitxa

Pelikularen emanaldiaren ondoren taldean eztabaidatzeko

- Azter dezagun trantsizio aurreko hainbat alderdi: familia-egitura, gizarte-mugimenduak, egoera politikoa eta ekonomikoa eta gizarte-lehentasunak eta -kezkak. Zein egoera sozioekonomiko islatzen da? Garai hartako zein gizarte-mugimendu ezagutzen duzue?...
- Zuen ustez orduko familia-eskema eta oraingoa bera al da kideen arteko harremanei, autoritateari eta erantzukizunari eta lanen banaketari dagokionez? Zein dira aldeak?
- Emakumezkoen eta gizonezkoen garai hartako rola kontuan harturik, nola definituko zenuke bakoitza? Jarraitzen al dute rol horiek?
- Zein alde dago frankismo-garaiko eta euroaren garaiko ekonomien artean?
- Egin dezagun azterketa bat gizartean hiritarren parte hartzea orduan eta orain nolakoak diren alderatzeko.

2.1. Fitxa

Oraingo gizarte-egoera gure historia gertukoaren aurrekari batzuek erabaki eta baldintzatu dute. Trantsizio-garaian sortu eta finkatu ziren hainbat gizarte-mugimenduk hurrengo urteetako historia markatu zuten.

Frankismoaren azken urteetan, hobekuntza sozial garrantzitsuak lortu zituen legez kanpoko langile-mugimendua sortu zen. Mugimendu horren ondorioz, herritar askoren beharrak eta nahiak adierazten zituzten beste batzuk ere sortu ziren: hiritar, emakume, preso, elbarri, homosexual, ekologista, antimilitarista eta abarren mugimenduak.

Gizarte-mugimendu horiek lortu zuten demokrazia izan zedin hiritarrek forma politikoei eta nahi zituen harreman-motei buruzko erabakietan parte hartzeko modukoa, izan zedin lortu zuten.

Azter ditzagun orain mugimendu horietako batzuk. Adibidez hauek:

- *Generoagatik bereiztearen aurkako mugimenduak.*
- *Sexu-aukeragatik bereiztearen aurkako mugimenduak.*
- *Mugimendu sindikalak.*
- *Mugimendu ekologistak.*
- *Mugimendu antimilitaristak.*
- *Auzo-mugimenduak.*

Egin itzazue taldeak, eta talde bakoitzat aukera dezala mugimendu bat aztertzeko. Alderdi hauek azertu behar dituzue:

- *Jatorria*
- *Sortze-prozesua.*
- *Ondorioak.*
- *Erabilitako baliabideak eta kostuak.*
- *Eragin dituen hobekuntzak.*
- *Onura ateratzen dituen pertsonak.*
- *Gizarte-mugimendu horrek eragin dituen ondorio sozialak.*
- *Oraingo egoera mugimendu horrekiko. Eragin historikoak.*

Esate baterako, web hauetan aurkituko duzue gaiari buruzko informazioa...

- Euskal Herriko Gizarte Mugimenduak, Rafael Ajangiz, Iñaki Bárcena, Giza eskubideei buruzko Deustu koadernoak. 14. zenb. Bilbo 2001, Deustuko Unibertsitatea.
- <http://www.nodo50.org/caes/AA/bot4AA/doc44.htm> Espainiako trantsiziopolitiko eta sindikalismoa
- <http://www.nodo50.org/caes/AA/bot4AA/doc48.htm> gizarte-mugimenak, goraldia eta krisia
- www.vespito.net/historia

Aztertu ondoren, gizarte-mugimenduak gainerako guztiei azalduko dizkiegu. Talde bakoitzak bere azalpena nola egin pentsatu beharko du.


Azalpena hobeto ulertzen laguntzeko hainbat bitarteko eta teknika erabil dezakezue: horma-irudiak, bideoak, grafikoa...

Irudimena garaile!!!

Etika



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Prentsa idatzia erabiltzea eta bertan agertzen den informazioarekin lan egitea.
- Mezuak irudi eta ikurren bidez interpretatzea.
- Elkarrizketetan aktiboki parte hartzea, entzutea eta iritzi desberdinak errespetatzea.
- Gizartean parte hartzeko bideak eta moduak planteatzea eta eztabaidatzea.
- Parte hartzeko modu batzuk zalantzan jartzea.

Jarduerak

1 Jarduera: “Orainaren protagonistak”

Deskribapena: Girotzeko posterretan oinarrituz, parte-hartzearen kontzeptua landuko da. Horretarako, ikasleei posterrak arretaz begiratzeko eskatuko zaie eta ikurren bidez transmititzen dituzten mezuak interpretatzeko (jarrerak, balioak...). Posterrak ikusitakoan, taldeka jarri eta gizartean parte-hartzeari buruz eta taldean sortzen diren ideiei buruz hitz egingo dute.

Taldeek orain posterrek ematen duten informazioa osatzeko eta zehazteko adibideak eta datuak bilatu beharko dituzte prentsan, hau da, gizartean parte-hartzearen kasu errealak. Talde bakoitzak ikerketa-lanaren eta bildutako informazioaren aurkezpena prestatu beharko du. Azkenik, bateratze-lana egingo da.

Azkeneko saioan, ikasleei eskatuko zaie gelan egindako aurkezpenean oinarrituz kazetari, umorista edo egunkari bateko marrazkilari gisa parte hartzeko eta berri bat idatzi edo komiki-banda edo umore-bineta diseinatzeko. Horrela, beraiek egindako lana “Orainaren protagonistak” lehiaketan aurkeztera bultzatuko ditugu.

Materiala: Posterrak, egunkariak, lehiaketaren oinarriak.

Dinamika: Banakakoa eta taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko hiru saio.



2 Jarduera:

“Izendatuak?”

Deskribapena: Hasteko, parte hartzeko dauden moduei buruz hitz egingo da. Hainbat ideia proposa daitezke ikasleek parte hartzeko aurkitzen dituzten moduen inguruan. Irakasleak galdera hau egingo du: parte hartzeko modu guztiek proiektu komuna sortzen laguntzen dute?

Orduan, ikasleei taldeka jartzeko proposatuko zaie gaur egun parte hartzeko eskaintzen zaizkigun guneen inguruan hitz egiteko eta hausnartzeko: galdera-sortak, telebistako programak, adibidez, "Operación Triunfo", "Gran Hermano"... Zein da parte hartzeko mota horien helburua? Gure ekintzek kausa zuzenak eta integratzaileak defendatu behar dituzte? Zer zentzu du bide horien bidez parte hartzeak?

Parte hartzeko eremuetan bertan errepasso bat egiteko eskatuko zaie ikasleei zein girotan mugitzen diren, zein jarrera duten, asmoak, itxaropenak eta abar berrikusteko.

Azkenik, bi proposamen aukeratu eta haien indarrak eta hutsuneak aztertzeko eskatuko zaie.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko bi saio.

Iradokizunak: Gizartearen ongizateaz arduratzen den parte-hartzearen irizpideak kontuan izan daitezke gelan, bai eta ikastetxeko gainerakoekin partekatu ere.